

AuzoEkin.

1. eremuko tailer irekia.

Landa eremua.

Tolosako Udala.

1.

Laburrean

1. Oinarrizko informazioa.

Data: uztailak 2.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Tokia: Udaletxeko pleno aretoan.

Parte-hartzaileak:

- Tolosako Udala:

- o Garikoitz Lekuona, Komunitatea eta Gobernantzako arduradun teknikoa.
- o Lide Olalde, Komunitatea eta Gobernantzako dinamizatzailea.
- o Osoigoko enpresako ordezkariak, Xabi eta Hegoa.

- Inguruko auzoetako bizilagunak:

- 14 bizilagun, 6 emakume eta 8 gizon.

2.

Aurkezpenaren gakoak

Ongietorria eta saioaren kokapena

Garikoitz Lekuona Izetak (Komunitatea eta Gobernantzako zerbitzuburuak) ongietorria egin die bertaratutakoei, eta laburki azaldu du AuzoEkin prozesuaren baitan gaurko bilera non kokatzen den. Horrez gain, tailerraren helburu orokorrak aurkeztu ditu:

- Orain arte jasotako datuen eta informazioaren interpretatzea.
- Hausnartzea, sailkatu eta indargune eta ahulguneak definitzea.
- Erronken lehenespena egin eta ondorioak ateratzea.

3.

Saioaren azalpena

1. DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA

Egoera eta beharrak aztertu dira eremuz eremu, modu integralean: ingurumena eta paisaia, historia eta kultura, mugikortasuna, espazio publikoa, etxebizitza, biztanleria eta bizikidetza, ekipamendu eta zerbitzuak, ekonomia eta kontsumoa...

Saiorako, partaideak talde txikitan banatu ditugu, eta daturik adierazgarrienak azaldu, eta horien inguruan hausnartu dugu.

Oro har, badakite denek auzo bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak dituela, baina arazo nagusi askok guztiei eragiten diela, eta bat egin dute: oinarrizko beharrak lehenetsi behar dira.

2. DINAMIKA

Saioaren zati honetan erronken inguruko dinamika bat egin dugu: bertan, erronkei buruz hausnartu, eta indarguneak zein ahulguneak definitu ditugu.

Diagnostikotik ateratako erronkak 6 bloketan banatu ditugu eta horien inguruan eztabaidatu. Hauek dira sei blokeak:

1. Ingurumena, paisaia, historia eta kultura
2. Mugikortasuna, azpiegiturak eta energia
3. Hirigintza eta etxebizitza
4. Biztanleria, partaidetza eta bizikidetza
5. Ekipamenduak eta zerbitzuak
6. Ekonomia eta kontsumoa

3. ERRONKEN LEHENESPENA

Behin erronkak sei bloketan banatuta, eta taldean eztabaidatu ondoren, erronka horiek lehenespenerako ariketa egin dute bakarka. Auzotar bakoitzari 6 gomets eman zaizkio, 4 berde eta 2 gorri. Gomets berdeak garrantzizko erronketan itsatsi, eta gorriak garrantzirik gabekoetan itsasi behar izan dituzte.

Amaitzeko, denak batera jarrita, erronken inguruko laburpen txiki bat egin da, eta arazo estrukturalak nabarmendu dira: errepideak, hiribideak, etxebizitzak... Horri lotuta herritarrek honako hausnarketa hau plazaratu dute:

«Guk kudeatuko dugun dirua 60.000 eurokoa bada, ez al zaizue iruditzen baliabide hori gauza txikiagoak egiteko erabili beharko genukeela? Gauzak 'aterizatu' eta kudeagarriak izan daitezten?»

Itxiera



auzoekin

Eskerrak eman eta
azken erronda bat
egin da, eta hurrengo

hitzordua gogorarazi da: **deriba, auzoan zehar
paseo bat eman eta orain arte aipatutako erronka guztiak geolokalizatu. Uztailak
15 eta 16, 18:00-20:00.**